



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR
BERRIOZARKO UDALA

Convocatoria de ayudas económicas para la alimentación en el comedor de la Escuela Infantil (Becas comedor) – Curso 2025/2026

Haur Eskolako jantokiko elikadura-dirulaguntzak emateko deialdia (Jantokiko dirulaguntzak) – 2025/2026 ikasturtea.

Bases Reguladoras

I. Objeto

La presente convocatoria tiene por objeto establecer el procedimiento para la concesión de ayudas económicas para alimentación al alumnado empadronado en Berriozar y que curse Educación Infantil en la Escuela Infantil Urtxintxa durante el curso escolar 2025/2026, conocidas como “becas de comedor”.

La concesión de estas ayudas municipales para alimentación tiene como finalidades principales:

- Garantizar una alimentación suficiente de los y las menores cuyas familias, por motivos económicos o sociales, no puedan asegurarla.
- Facilitar la conciliación familiar permitiendo compatibilizar el horario de trabajo de las familias y la atención a sus hijos e hijas durante el horario de la comida.
- Favorecer la participación en el comedor de los niños y niñas de núcleos familiares desestructurados y con necesidad de una dieta completa y equilibrada, así como de impulsar la adquisición de hábitos saludables, compartiendo la experiencia del comedor con otras personas.

II. Requisitos específicos

Las familias beneficiarías de la prestación económica para comedor de la escuela infantil

Oinarri Arautzaileak

I. Xedea

Deialdi honen helburua da elikadurarako dirulaguntzak emateko prozedura ezartzea, “jantokiko bekak” deitutakoak, hain zuzen. 2025/2026 ikasturtean Urtxintxa Haur Eskolako Haur Hezkuntzako ikasleak izan ahalko dira dirulaguntzen onuradunak, Berriozarren erroldatuta badaude.

Elikadurarako udal languntza hauek ondorengo helburuak lortzeko emanen dira:

- Adin txikikoen elikadura nahikotasunez bermatzea, arrazoi ekonomiko edo sozialengatik horrela egiterik ez duten familiakoak badira.
- Familia kontziliazioa erraztea, bazkaltzeko orduan familien lanaldia eta seme-alaben zaintza bateragarri izan daitezen.
- Batetik, familia desegituratuetako eta dieta oso eta osasuntsu baten falta duten haurrak jantokira joan daitezen; bestetik, haurrek ohitura osasungarriak barnera ditzaten, jantokiko esperientzia beste pertsona batzuekin partekatuz.

II. Berariazko betekizunak

Udaleko Haur Eskolako jantokiko dirulaguntza jasotzen duten familiek, betekizun hauek bete

municipal deberán cumplir los siguientes requisitos: beharko dituzte:

1. Exclusivamente optan a la ayuda de comedor los niños y niñas empadronadas en Berriozar y matriculadas en la escuelas infantiles municipales.
Asimismo, podrán optar a la ayuda los niños y niñas empadronadas en Berriozar que al no haber obtenido plaza en la escuela infantil Urtxintxa, han tenido que matricularse en otra escuela infantil.
2. Contar con unos ingresos familiares por todos los conceptos inferiores a los establecidos en los requisitos económicos.
3. Estar al corriente de cualquier tipo de obligación tributaria o de otro tipo de carácter municipal.

III. Requisitos económicos.

1. Que la renta per cápita familiar de 2024 no sea superior a 7.980 euros.

A los efectos de esta convocatoria, se considera renta per cápita anual a la cantidad que resulte de dividir la base imponible de la unidad familiar de la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del año 2024; o, en su caso, la cantidad de ingresos justificados del año 2024 entre el número total de las personas miembros de la unidad familiar.

A efectos prácticos se entenderá que la base imponible es el resultado de la suma de las casillas: 507, 8810, 8808 y 529; y la resta de las casillas: 708, 511, 822 y 578 del impuesto sobre la renta de las personas físicas del ejercicio 2023 en la Comunidad Foral de Navarra o las casillas equivalentes en el resto del Estado.

En el caso de no estar en la obligación de presentar la declaración de la renta, la cantidad de ingresos a justificar del año 2024, se hará mediante certificado del

1. Soilik Berriozarren erroldatutako eta Udal Haur Eskolan matrikulatutako hurrek jaso dezakete jantokiko dirulaguntza.
Halaber, Urtxintxa Haur Eskolan lekurik gabe geratzeagatik beste haur eskola batean matrikulatu behar izan diren hurrek ere jaso ahalko dute laguntza, Berriozarren erroldatuta badaude.
2. Baldintza ekonomikoen atalean ezarritako diru-sarrera familiarak baino txikiagoak izatea, kontzeptu guztiak kontuan hartuta.
3. Ordainduta izan beharko dituzte udal zergak edo bestelako ordainketak.

III. Baldintza ekonomikoak.

1. Familiaren 2024. urteko per capita errenta 7.980 eurotik gorakoa ez izatea.

Deialdi honi dagokionez, urteko per capita errentatzat hartuko da zatiketa honetatik ateratzen den zenbatekoa: 2024ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako familia unitatearen zerga-oinarria (edo, hala behar badu, 2024an justifikaturiko diru-sarreraren zenbatekoa) zati familia unitateak dituen kide guztien kopurua.

Ondorio praktikoei dagokienez, zerga-oinarria Nafarroako Foru Komunitateko 2023ko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako laukitxo hauen batura eta kenketaren emaitza da (edo Estatuaren gainerako tokietako laukitxo baliokideena): 507., 8810., 8808. eta 529. laukitxo batura eta 708., 511., 822. eta 578. laukitxo kenketa.

Errenta aitorpenik aurkeztera beharturik ez dagoenak, egiaztatu beharreko 2024ko diru-sarreraren kopurua eta, beraz, beharkizun eza, Nafarroako Gobernuo Ekonomia eta

Departamento de Economía y Hacienda del Gobierno de Navarra que justifique la no obligación o, los documentos que se consideren necesarios para determinar los ingresos familiares del año 2024.

La ocultación de cualquier fuente de renta dará lugar a la denegación de la ayuda solicitada o a su anulación si ha sido concedida.

2. Los intervalos de renta aplicables para la concesión de ayuda según los ingresos familiares per cápita son los siguientes:
 - Menor o igual a 4.500 euros: ayuda máxima 45%.
 - De 4.500,01 a 5.500 euros: ayuda máxima 40%.
 - De 5.500,01 a 6.650 euros: ayuda máxima 30%.
 - De 6.650,01 a 7.980 euros: ayuda máxima 20%.

El porcentaje de ayuda reseñado para cada intervalo de renta per cápita es el máximo que se puede conceder y su porcentaje exacto dependerá de la consignación presupuestaria existente y de las solicitudes presentadas.

3. Las cantidades totales a subvencionar no podrán exceder del montante de la partida presupuestaria correspondiente.
4. El tanto por ciento subvencionable se fija en función de la cuota correspondiente al servicio de comedor.

IV. Presentación de solicitudes

Las personas interesadas presentarán su solicitud, en el Ayuntamiento de Berriozar (Plaza Euskal Herria, 1) o en el Registro Electrónico (<https://sedeelectronica.berriozar.es/carpetaciudadana/tramite.aspx?idtramite=247>), a partir del siguiente a la publicación del extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Navarra y

Ogasun Departamentuaren ziurtagiri baten bitartez egiaztatuko du, edo, bestela, 2024an familiak izan dituen diru-sarrerak zehazteko behar diren agirien bidez.

Errenta iturriren bat ezkutatzen bada, eskatutako laguntza ukatuko da edo, emana baldin badago, baliogabetuko da.

2. Hauek dira laguntza emateko aplikatuko diren errenta-tarteak familiaren biztanle bakoitzeko diru-sarreraren arabera:
 - 4.500 euro edo hortik behera: %45, gehieneko laguntza.
 - 4.500,01 eurotik 5.500 eurora: %40, gehieneko laguntza.
 - 5.500,01 eurotik 6.650 eurora: %30, gehieneko laguntza.
 - 6.650,01 eurotik 7.980 eurora: %20, gehieneko laguntza.

Biztanle bakoitzeko errentaren tarteetan adierazitako laguntzaren ehunekoa eman daitekeen gehienekoa da, eta haren ehuneko zehatza dagoen aurrekontu-esleipenaren eta aurkeztutako eskaeren arabera izanen da.

3. Dirulaguntzen kopuru osoak ez du gaindituko dagokion aurrekontu sailaren zenbatekoa.
4. Diruz lagundu daitekeen ehunekoa jantokiko zerbitzuari dagokion kuotaren arabera ezarriko da.

IV. Eskaerak aurkeztea

Interesdunek eskabidea Berriozarko Udaletxean aurkeztuko dute (Euskal Herria plaza 1) edo Erregistro Elektronikoa (<https://sedeelectronica.berriozar.es/carpetaciudadana/tramite.aspx?idtramite=247>) deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita 2024ko irailaren 15a arte.

Ikasturtean zehar, dirulaguntzak behar

hasta el 15 de septiembre de 2024,
A lo largo del curso escolar se pueden solicitar, valorar y resolver ayudas a las familias que lo precisaran y por el periodo que reste de curso.

V. Documentación a presentar

Las solicitudes de beca deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

- Instancia cumplimentada según modelo oficial.
- Autorización al Ayuntamiento de Berriozar para que este pueda consultar los datos fiscales de las personas solicitantes en la hacienda tributaria de Navarra.

El Ayuntamiento procederá de oficio a comprobar que las personas solicitantes se encuentran empadronadas en Berriozar y que todas las personas miembro de la unidad familiar están al corriente de las obligaciones tributarias.

VI. Concesiones y denegaciones.

1. La resolución de esta convocatoria la realizará la Junta de Gobierno Ayuntamiento de Berriozar.
2. El pago de las ayudas se realizará mensualmente mediante el descuento en las cuotas de comedor de los niños y niñas beneficiarias.
3. Las ayudas económicas tendrán efecto desde la fecha en que sean aprobadas por el órgano municipal competente.
4. Las becas cuentan con una consignación anual de 6.000 euros (aplicación presupuestaria 1 32310 4800000 BECAS ESCUELA INFANTIL, 6.000,00 euros). La aprobación estará condicionada a la existencia de consignación presupuestaria suficiente en el presupuesto de 2025 y 2026.
5. Los porcentajes de ayuda definitivos se consideran máximos y dependerán de la consignación presupuestaria y de las

dituzten familiek eskaera egin ahalko dute gelditzen diren egunetarako eta Udalak baloratu eta erabakiko ditu eskaera horiek.

V. Aurkeztu beharreko agiriak

Beka eskaerarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

- Eredu ofiziala den eskabide betea.
- Berriozarko Udalari emandako baimena, Nafarroako Ogasunean eskatzaileen zerga-datuak ikusi ahal izateko.

Udalak egiaztatuko du, ofizioz, eskatzaileak Berriozarren erroldatuta daudela. Halaber, familia unitateko kide bakoitzak zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatuko da.

VI. Laguntza ematea eta ukatzea

1. Berriozarko Udalaren Gobernu Batzarrak emanen du deialdiari buruzko ebazpena.
2. Dirulaguntzak hilero ordainduko dira, kopuruak haur onuradunen jantokiko kuotetatik kenduta.
3. Dirulaguntzek eragina izanen dute udal organo eskudunak onartzen dituen egunetik aurrera.
4. Bekak emateko urteko kontu-saila 6.000 eurokoa da (1 32310 4800000 kontu-saila, BEKAK - HAUR ESKOLA, 6.000,00 euro). Onartzeko baldintza izanen da 2025 eta 2026ko aurrekontuan diru nahikoa izatea.
5. Dirulaguntzen behin betiko ehunekoak gehienezkotzat jotzen dira eta aurrekontuak eta eskatutako eskaerek baldintzatuko dituzte. Hortaz, urteko behin betiko dirulaguntzaren ehunekoa, 6.000 euroko gehienezko diru-izendapenaren arabera

solicitudes presentadas, estableciéndose el porcentaje definitivo de ayuda para todo el año en función de la consignación máxima de 6.000 euros.

En el supuesto de que importe total de las ayudas supere la consignación económica reservada para la convocatoria en los presupuestos municipales, se procederá al prorrateo entre las personas beneficiarias de la convocatoria que cumplan los requisitos establecidos.

VII. Obligaciones de la persona beneficiaria.

La persona beneficiaria estará obligada a hacer uso del comedor de la escuela infantil. La acreditación del uso del servicio se realizará de oficio por el Ayuntamiento mediante informe de la escuela infantil. En el caso de alumnado de escuelas diferentes a Urtxintxa se solicitará informe de la utilización del comedor a la escuela correspondiente.

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento del pago de la subvención en los siguientes casos:

- Obtener la subvención sin reunir las condiciones.
- Incumplimiento de las condiciones impuestas.

Cuando en el ejercicio de las funciones de inspección o control se deduzcan indicios de la incorrecta obtención, disfrute o destino de la subvención o ayuda percibida, las personas agentes encargadas de su realización podrán acordar la retención de las facturas, documentos equivalentes o sustitutivos y de cualquier otro documento relativo a las operaciones en las que tales indicios se manifiestan.

izanen da.

Laguntzen zenbateko osoak udal-aurrekontuetan deialdirako gordetako diru-kopurua gainditzen badu, ezarritako baldintzak betetzen dituzten onuradunen artean hainbanatuko da laguntza.

VII. Onuradunaren betebeharrak

Onuradunek Haur Eskolako jantokia erabili beharko dute. Udalak horrela dela egiaztatuko du, ofizioz, Haur Eskolari beharrezko informazioa eskatuta. Urtxintxakoak ez diren ikasleen kasuan, jantokiaren erabilerari buruzko informazioa kasu bakoitzean dagokion eskolari eskatuko zaio.

Jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dira eta dirulaguntza emandako unetik sortutako berandutze interesak eskatuko dira hauetako kasu batean egonez gero:

- Dirulaguntza baldintzak bete gabe jaso bada.
- Ezarritako baldintzak bete ez badira.

Kontrol edo ikuskapena egitean, jaso den dirulaguntza gaizki lortu edo gaizki erabili, edo behar ez den helbururako erabiltzen ari deneko aztarnarik balego, kontrol horiek burutu behar dituzten agenteek erabaki ahalko dute fakturak, edo horien agiri baliokide edo ordezkioak, atxikitzea; atxikitzen ahal dute, halaber, aztarna horiek agerian uzten dituen beste edozein agiri.

VIII. Bateragarritasuna

Laguntzak bateragarriak izanen dira administrazio publikoaren edo erakunde

VIII. Compatibilidad

Las ayudas serán compatibles con cualquier otra ayuda de administración pública o entidad privada que se hayan dado con el mismo fin, siempre y cuando no exista sobre-financiación.

En cualquier caso, la persona solicitante deberá comunicar al Ayuntamiento de Berriozar la totalidad de las ayudas recibidas.

IX. Normativa aplicable

Para la interpretación y aplicación de las presentes Bases serán de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, Reglamento de Subvenciones, así como la Ordenanza Municipal de Subvenciones.

X. Interpretación.

La interpretación de estas bases corresponde a la Junta de Gobierno del Ayuntamiento de Berriozar.

XI. Información Básica Protección de Datos

Responsable: Ayuntamiento de Berriozar.
Finalidad: Gestionar las ayudas y subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento.
Derechos: Acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos, como se explica en la información adicional.
Información adicional: La información adicional y detallada sobre los tratamientos de datos y Delegado de Protección de Datos está disponible en el apartado de Política de Privacidad de la Web municipal www.berriozar.es dpd@berriozar.es.

pribatuaren xede bererako emandako beste edozein laguntzarekin, betiere gainfinantzaketarik ez badago.

Edonola ere, eskatzaileak Berriozarreko Udalari jakinarazi beharko dizkio jasotako laguntza guztiak.

IX. Araudi aplikagarria

Oinarri hauek interpretatzeko eta aplikatzeko, honako arau hauek erabiliko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza.

X. Interpretazioa

Berriozarko Udaleko Gobernu Batzarrari dagokio oinarri hauen interpretazioa.

XI. Datuak Babesteko Oinarrizko Informazioa

Arduraduna: Berriozarko Udala. **Xedea:** Udalak emandako laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzea. **Eskubideak:** Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatu, baita beste eskubide batzuk ere, informazio gehigarrian azalduta dagoen bezala. **Informazio gehigarria:** Datuen tratamenduei buruzko eta Datuak Babesteko Ordezkarari buruzko informazio gehigarria Udalaren webgunean dago eskuragarri, Pribatutasun Politika atalean www.berriozar.eus / dpd@berriozar.es